

# GURE BALOREZKO PROPOSAMENA



## ZER ARAZO KONPONDU NAHI DUGU PROIEKTU HONEKIN?

Guztion ahotan dabilen gai bat da klima-aldaketa, gizaki guztioi eragiten baitigu. Gure proposamena bide honetatik doa hain zuzen ere.

## NOLA BIDERATUKO DUGU PROIEKTUA?

Plastikoaren gehiegizko kontsumoa ekiditeko, eskuz egindako produktuak aterako ditugu merkatura, material birziklatua erabiliz. Produktu horien artean boltsak, diruzorroak, zintak etab. daude.

## ZEIN MATERIAL ERABILIKO DITUGU?

Bakero zaharrak, puskatutako arropa, botatzera goazen tela puskak, etab.

## ZERK BEREIZTEN ZAITU ETA, BERAZ, ZERGATIK EGONGO DA BEZEROA ZURI ORDAINTZEKO PREST?

Produktu originalak izango dira, gutxi ikusiak, baina aldi berean modari egokituak. Gainera, irabazitako diruaren zati bat (%30 inguru) klima aldaketak sortutako gaixotasun batzuen ikerketarako doa bideratua; gaixotasun horien artean daude minbizia eta asma.